


belke

2004ko IRAILA,
125. ZENB. DOHAINIK



olarruen EGUNA

2004-2005 IKASTURTERAKO... DENA PREST!!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria

Xabier Azkue

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Gurenda Serrano

Itziar Garate

Roberto Gutierrez

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Haize Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola.

Argazkiak

Baleike

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
orain hamar urte	7
ze berri	
olarru eguna 2004	8
elkarriketa	
oier aizpurua	10
erreportaia	
baleike.com	14
gure zumai zarra	
trini bidasoro blasco	17
ibilbideak	
artikutza	20
olarru zopa	22
kirolak	
2004-2005 denboraldia	24
arrauna - surf	27
kultura	28
bertil lagerström	
zineforum denboraldi berria	
agenda	



elkarriketa **oier aizpurua**

“sellan gu amaieran
markatzen sartu
bagina, eta gainera
beraiek baino
azkarragoak izan da,
ezinezkoa izango zen
galtzea”



Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Hoi dek itsua!

Gorka Iribar



Lehenik eta behin, esan beharra daukat buruhauste bat baino gehiago izan ditudala Baleikeko zatitxo honetarako zer idatzi pentsatzeko garaian. Nire azken idazlana 17 urterekin egin nuen, EGAKo azterketan hain zuzen ere. Baina hura gutxienik gidoi bat eskuan nuela izan zen eta berak ematen zidan zer esana. Oraingo hau berriz librean da, eta askatasun honek zeharo estutu nauen sentsazioa daukat, ia-ia bertsotan bezala.

Orduerditxo bat irudimena lantzen igaro ondoren, azkenean ideia bat etorri zait burura, urteko garai honetan gazteen artean zeresan handia eman ohi duen gaia: kalamua (edo marihuana). Iraila da, eta gehientsuenok jakingo duzuen bezala, kalamuak sasoi honetan ematen du bere "fruitua".

Nire iritziz (eta ez naiz hau pentsatzen duen bakarra), oso landare dotorea, usain bizikoa, eta batik bat erabilgarria da marihuana. Batzuek etxean izaten dute beren landaretxoa, besteek mendian, eta beste batzuek garajeren batean argi elektriko bidezko marihuana haztegi batean. Landare xarmant hau, gure gizartearen orohar, ez dago oso ongi ikusia. Dakizuen bezala, droga mota bat

da eta horrek asko zikindu du bere izen ona. Baina ez da, inola ere, askok pentsatzen duten bezain droga gogorra, eta inoiz probatu ez duenari gomendatuko nioke aukera duenean kaladatxo bat edo beste hartzea, estresa kentzeko sistema ezin hobea baita. Hori bai, inoiz erre ez duenak nahikoa dauka hiruzpalau kaladarekin bere eraginaz jabetzeko, guztiari bezala honi ere neurria hartzea komeni baita. Orain, gainera, osasunari kalte egin ordez, mesederako ere badela jakinarazi zigutenetik, ari da pixkanaka-pixkanaka entzute hobea hartzen, formalagoa, alegia.

Ez dizu et hitz jario handiegirik ere jasanarazi nahi eta, beraz, nahikoa esan dudala iruditzen zait. Besterik gabe, animatu eta erre belarra, baina hori bai, tamainan, bestela ondorioak larriak izan daitezke eta, bai zuretzat, baita zure ingurukoentzat ere. Eusko Jaurarlitzaren aholkua.



Alberdi
Gizonetzkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela



Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

Ditxosozko bakazixuak

Bukatu txun; kostata baño bukatu txun ditxosozko bakazixuak.

Ene! Aurtenguan e ezinat bate errezeatu agostua bukatzeko; izan e Caritas emate ñau: bateko umia ta besteko jatekoa, ni behintzat beti bukatu ezinian ibiltze naun. Normalian semia etortzen den goizian goiz Mikelekin, etxeko txikixakin ta alaba geo Amaia eta Itsaso bixkixekin. Maitagarrixak hirurak, baña zezen txikixak baño bihurrixo.

Ordurarte jasotako guztixak aitaren batian nahastu ta segituan txun sukaldian:

- Amama, Triskis!

- Amama, amama, nik txokokrispis!

- Amama Arritxu, guazen parkea

- Amama....

- IXO!! Hainbeste triskis ta traskis geo. Ala, jaso atea txozuen trastuak ta guazen noabaitea.

Etxia hankaz gora utzi ta parkea jute gattun laurok; han e ixa egunero izate ñu zirkua; bat kolunpixuan bultzatzeko iñez, bestia berriz txirristan eroi ta near batian, ta askotan hirugarrena nun dabilkiun arrastoik gabe.

Hamabixak aldian erraña ta alaba etortze txun, plaiatik bueltan umiak jasotzea; ni berriz etxea presaka gizonai bazkixa prepaatzea. Ta etxia hankaz gora, nork jasoko zai. Akabo atsaldeko siesta.

Ta aste bukaera alleatu orduko, ala! Danak geurera:

- Ama, plaiatik bueltan jungo al gea bazkaita?

- Ama, eukiko al txozu umiak gaur gabian? Afaita jun nahi deu lasai-lasai aspaldiko partez

Nik entenditze dinat, gaziaki txun ta bakazixuak disfrutatu nahi dizkine, baña "amama Arritxuk" e mereziko txu ba bakazixuak, eo? Ba, ezetz ematen din, agostuan ez behintzat, hil hontan baño lan gehixo

ez diñat eta inoiz iten.

Gizonak zeoez ingo balu sikiera... Hura bai bizi dala bakazixotan, jubilau zanetik gure Damian bakazixotan bizi den. Beti badin zeoez etxetik ihesixan juteko, batian bate-la atxikatu bihar dula, hurrengo semia ta bixak itxasoa dijuazela, hurrengo berriz lagunekin geatu dala... Batzuk ondo bizi txun, ondogi. Denbora nola pasa etzikine ta hor ibiltze txun, batei punta atea ta bestiai zirixa sartu, estalopian. Gure Damianek e majina ordu alperrik galtzen dixkin Erribera kalia gora ta bera zurrutian.

Ta ikusi nunian Joxe Luis Mokok ta bere akolituek (tartian gure Damian) Baleiken "jubilauek izenian" eskribitu bihar tzuela pentsatu niñan:

- Alper kuadrila honek tontokexak besteik ez dizkiñe kontatuko, bai, ta neuk e Baleikekuekin hitzeingo ñat aber lan iten deun "jubilauentzat" e tarte bat daon.

Baleikeko hoxek etzikinat ze maketazixo problema ziala ta etziala behintzat bixak batea ezin tziala atea esan zinenan, ta batian bat ta hurrenguan bestia txandaka ateako zittuela. Nei soluzixo ona iruitzen zikan, batez e Joxe Luis Mokoi ta gure Damiane bere tontakexen partez hau ikusten duenian jarriko zaien tripako miñakin akorratzen zaxenian.

Guain herriko plaia, disfrutatzea.

sukaldetik



Arritxu

Uda 2004

Ni udarazalea naiz baina, uda garaia gehienontzat izaten da berezia. Denok gogoratzen ditugu gure ume garaiko udak, oporretara nora joan ginen, kanpinak, hotelak, han ikusitakoak edo gertatutako anekdotak... betirako gogoratzen ditugun gauzak dira. Eta geroago ere halaxe izaten da, uda bakoitzak oporraldi bat uzten du gure memorian, argazki batzuk, abenturaren bat, lagun berriak, parranda gloriosoren bat edo gehiago... Aurren ere pasa zaigu udara, beti bezala azkar eta kontutxo bezala. Itzurunera joaten garenok datorren urtean gogoratuko dugu aurren itsaso biziko udara izan dela, bandera gorri ugari-koa. Eguraldia, eguzkia ala euria egin, beroa izan da, pegajosua, hemengo euskera jatorrean esaten den bezala. Aurtengo udako beste protagonista batzuk herri osoan zehar jarritako lorontziak izan dira, alergiadun turistak dozenaka akatzeko moduko kantitateetan. Ni neu, ideia gustatzen ez zaion horietakoa naiz. Eta ez lorezalea ez naizelako, turisten begiak alaitzea baino lehenago beste lehenago batzuk ikusten ditudalako milioiak gastatzeko orduan, makillajeetan baino.

Esaterako, Oxford kultur areto modernoa eta ondo ekipatua bihurtzea, "ja ja ja". Udako beste kontu bat, bidegorriena. Horien akatsa berriz, barandaxo alu horiek, kotxeari zein oinezkoari azpialdea txikitze modukoak. Uda honetan, Zarautzera ailegatzeko nire marka onena, 55 minutukoa izan da. Obretako semaforo horren parera ailegatu eta hasieratik berde tokatu zaion norbait ezagutu nahiko nuke. Bestela, ederki ibili gera, Zumaia "ezereze eta festa" egiten dakien herria baita. Ez degu aitzakia handirik behar ondo pasatzeko, eta aurren sekula baino forastero gehiago ibili bada ere, giro herrikoia izan da nagusi udara osoan zehar. Egaittuk makalak!

Eta holaxe, udarari agur esan orduko, laster goiko plazan aiton-amonaren bati entzungo diogu esaten "...bai, kontuatzeako, Gabonak".



Jon Maia

ERREPRESIO EKONOMIKORIK EZ!

SEGI

2002ko uztailaren 16an Zumaian gertatutako ez da txantxa. Bi gazteri "Calumnias" leporatuta epaitegira deituak izan ziren, beste behin ere errepresioaz herriaren ahotsa isildu nahian. Gertakariaren errepasoa egitea egoki iruditu zaigu.

"Udalak" Ertzaintzaren banda ekarztea erabaki zuen egun jakin batean, bestela ere ez dira, ba, kalean nahikoak ikusten. Ba, horrelaxe, egun osorako ertzainez bete zen herria. Aurpegia garbitzeko jokoak ez zuen gehiegi iraun. Zenbait lagun kontzertuaren berri jakitean protesta egiteko asmoarekin kalera atera ziren, baita manifestazio bat egiteko asmoa agertu ere. Tamalez, ezin izan zen kalean manifestaziorik egin, ertzaintzak ez baitzuen baimenik eman horretarako. Azkenik kontzentrazio bat egitea onartu zen, baina ertzaintzak esandako lekuan eta moduan. Eguna iritsi zenean, jende talde bat bildu zen herrian kontzentrazioaren ordua eta lekua jakinarazteko kartelak ipintzeko eta beste errebindikazio batzuk egiteko. Ertzaintzaren presentzia eta presioa nabarmena izan zen goizean goizetik, ez dakigu zer dela eta. Ez al da kontzertu "normal" bat? Eguerdian patruila pare bat ibili ziren herriko kartel guztiak paretetatik eta tabernetatik kentzen; are gehiago: Inpernupe

tabernan sartu ziren eta barruan zegoen kontzentrazioarako deialdia egiten duen kartela kendu zuten paretatik aurpegia kaputxaz tapatuta zuten bi ertzainek. Tabernariak horretarako eskubiderik ez zutela adieraztean "gure herri zaindarien" eskua altxa eta aurpegia txikituko ziola mehatxu egin zioten. Noski tabernariak kasu egin zion.

Geroxeago, kafe garaian, herri gutzia txukundu zutela ohartzean, bi gaztek, bere eskubidea zelakoan, beraien iritzia kaleratzea pentsatu zuten berriz ere, eta pankarta bat jarri zuten. Eta bat-batean tabernan zeudela, hara non agertzen diren berriro "herri zaindaria". Tabernara sartu berriro ere (aurpegia tapatuta badaezpada ere, ez ezagutzeko, noski) eta bi gazteak kanpora ateratzera "gonbidatu" zituzten, inongo azalpenik eman gabe. Identifikazioa eskatu zieten, inongo azalpenik eman gabe eta ez goxo-goxo. Kanpoan eduki zituzten, beste 6-8 ertzainek pankarta kentzen zuten bitartean. Hau egun horretarako gertakariak modu ironiko zamarrean kontatua, gauzak diren bezala kontatuz gero beste epaiketaren bat edukitzeko beldurra dugu eta.

Beno, ba, handik urtebetera, gutun bat iritsi zitzaion bi gazte horiei, Ertzaintza gorputz polizia-

ren aurka, intentzio mingarriarekin gezurrak "esateagatik" epaitegira agertu behar zutela adieraziz. Dirudenez, ertzaintzak bi gazteak denuntziatu zituen. Pankartak zera jartzen zuen: "Desfile militarrik ez" eta "Ertzaintzak ere torturatzen du". Fiskalak gazte bakoitzari 1.080.000 pezetako zigorra ezarri nahi zion. Ez dugu uste oso justua denik, ez? Azkenik bi gazteok fiskalarekin adostasun batera iritsi behar izan dute eta beraiek izan direla aitortuaz, bakoitzari 720 euroko isuna jarri diote. Gutxiago da, bai, baina zergatik ordaindu behar da ia 250.000 pezeta horrelako adierazpen bat egiteagatik. Ez al dago adierazpen askatasunik? Ez al da ba inor torturatua izan ertzaintzaren eskutan?

Azkenik, epaiketaren gastuak eta isuna kontutan hartuta, bien artean 500.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Goazen argi hitz egitera. Hemen oraindik torturatzen da eta ertzaintza ez da herriarena. Ez gaitzela isildu! Isuna ordainduko dugu, denon artean bada hobe, artaka txikiagoa izango da eta. Garbi izan dezatela ez gaituztela atzera botako eta adierazpen askatasunaren alde borrokatuko garela. Geurea dena lortuko dugula.

Jo ta ke irabazi arte!



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

asteguntan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea

Tel. 943143310

Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
euskara
inglantiar
español
catalan
suomi
basc
català
finnois
francès
anglès
català
français
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Abuztua jua zaigu...



"Abuztua jua zaigu eta eibartarrak eta gainontzeko bixitariak hasiak dira beren herrietara erretiratzan". Hala dio orain 10 urteko Baleikeko hitzaurreak. Eta egia galanta da. Erribera kalera besterik ez dugu begiratu behar. Txikiteroak, ume mordoa eta haize pixka bat hartu nahi duten amak besterik ez ditugu aurkitzen. Turistak joan zaizkigu eta fauna autoktonoa geratzen da. Badator udazkena.


Elena Irureta aktorea elkarriketatu genuen 4. zenbakian. Lan egiteko, antzerkia telebista baino gehiago gustatzen zitzaioela zioen. Azken honetan, gainera, askotan tresna bat gehiago sentitzen zela aitortzen zigun. Bazekien zertaz ari zen, hori seguru.

Serio jarrita, 1994ko irailean Xabier Kalparsoro hil zuteneko lehen urteurrena betetzen zen. Gertaerari buruzko puntu ilun asko zeuden, eta familiarekin hitz egin ondoren, gertatutakoaren kronika laburra egin zen aldizkarian. Iparraldean errefuxiatuta zegoenean idatzitako gutun bat ere irakur zitekeen.

Kirol portuaren auzian beste kapitulu bat bizi izan zen uda hartan. Zumaia Bizirik taldeak antolatuta, 20 egunetan, baltsa bat izan zen herriko badian. "Honekin (...) Santixoko ingurunea babestu beharreko gunea dela adierazi nahi izan dute, kirol portuaren proiektua salatzearekin batera". Izan zen, bai, zeresana "akanpada" kurioso haren.

Ohiko atalek jarraitzen zuten. Antimilitarismoko orrietan, Zumaiaiko lehen objetoreetakoa izan zen Joseba Ossarekin hitz egiten zen (beraien jarrera politikoa soilik ez, etikotzat ere jotzen zuen). Sexualitateko atalean kondoari buruz hitz egiten zen (batzuentzat, kondoia jartzea boxeoazko goante bat janztea bezala zela, esaten zen). Natur Taldeak eta Arte Taldeak, elkartuta, Santixo-Artadi-Bedua ibilbidea egitea proposatzen ziguten. Baina oinez, e!

Gehiago ere bazen zenbaki hartan: AEK-Udala afera-ren kapitulu berria, musika, gazteria, etab. Hurrengo hila-betean, gehiago.



ekin
estelaketa, sl

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+ CANAL+

OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

olagarroa olagarro artean

ITZIAR GARATE

Olagarroa. Zumaiaarren ikurra. Ekainean gure kostalde-
ra hurbiltzen da ugaltzeko helburuarekin. Orduan
hasien da Zumaian olagarroaren saltsa. Askotan ikus
daitezke, ilargiaren gora-beheran betiere, olagarro
bila doazen arrantzale saiutuak. Bere egonaldia urria
arte luzatzen da, baina lehenago badu egun berezia gure
herrian, irailaren 18an bere egun handia ospatzeko aukera izan-
go dugu. Ikurra ikusgai bihurtuta.

Aurten ospatuko da lehenengo aldiz Zumaian Olarru
Eguna, irailaren 18an zehazki. "Ekitaldi ugari eta anitzak"
prestatzen saiatu direla adierazi digu Edurne Etxe-
berriak. Bera da lan hau guztia aurrera ateratzen
aritu den taldeko partaideetako bat. Berarekin
egon gara Zumaiaiko Turismo Bulegoan
honi guztiari buruz hitz egiten.

Edurnek azaldu digunez, honen guztia-
ren atzean zumaiair koadrila bat aurkitzen da.
"Inguruko herriek badute berdel eguna,
baita antxoia eguna ere. Zumaian zer-
bait berezia prestatu behar zela pen-
tsatu zuten eta hemendik dator ideia
guztia". Hainbat bilera eta solasaldi-
ren ondoren gutxinaka gauzatzen
joan den proiektua izan da.

Bilerak eta prestakuntza guztiak ia azken
egunera arte ez direla amaituko esan digu, baina pozik
azaldu da egindako lanarekin. Olagarroa eta Zumaiaiko
herriaren arteko lotura azpimarratzea dute helburu. "olaga-
rroa eta Zumaia betidanik azaldu dira uztarturik, baina
honen bidez lotura hori sendoagoa egitea gustatuko litzaiguke".

Horretarako, olagarroaren inguruko guztiak kontuan har-
tzen saiatu dira. Olagarroak bere zortzi besoekin egiten duen

moduan, ahal izan duten leku guztietara iritsi nahi izan dute.
Kostaldean harrapatzen dutenengandik hasi, jaki bezala pres-
tatzen dutenengandik igaro eta dastatzen dutenetara heldu
arte, bidean, ezagutzen ez dutenak ahaztu gabe. "Horretarako
ekitaldi anitzak prestatzen saiatu gara".

Horren adibide dira Elkarteen arteko Lehiaketa Gastro-
nomikoa. Lehiaketa hau goizean hasiko da. Elkarrekin olaga-
rroa patatekin prestatu beharko dute eta epaimahai baten
dastaketa zorrotzetik pasa ondoren egindako lana bazkari
herrikoian gozatu ahal izango da.

Irailaren 18an bertan egun guztian zehar hainbat ekintza-
rekin giroa mantentzen saiatuko dira. Haurrentzat bereziki
bidaia gidatuak txalupaz Algorriraino, Beheko Plazan egingo
den elikagaien azoka, dastaketa, ekintza musikalak... bul-
tztatzen saiatu diren aniztasunaren adibide dira.

Ekitaldiak irailaren 18an hasiko dira baina erakus-
keta baten bidez igandera arte luzatuko da
aurten lehen aldiz ospatzen den
Olarru Eguna.

Ekintza ugari izan dira, baina
beti ateak zabaldurik dituztela esan
digu eta oso polita izan dela jendea-
ren parte hartzea "Jendea Turismo
Bulegora hurbildu eta ideiak ematen
egon da etengabea". Horregatik proiektu-
arekin eta lanarekin aurrera jarraitzeko asmoa
azaldu digu. "Entzun ditugun ideia asko oso onak izan
dira eta aurrera ateratzea gustatuko litzaiguke. Polita izango
litzateke datozen urteetan ere honelako ekitaldiak antola-
tzea". Horretarako asmoa dutela garbi azaldu nahi izan digu.

Beraz, irailaren 18an gure herriaren ikurra denaren ingu-
ruan zerbait ikasi nahi badugu ez daukagu aitzakiarik. Ola-
garroak bezala bi begi handi horiek zabaltzeko eta ingurukoa
mia dezakegu. Ekintzak prestatu daude orain olagarroak
kanpora ateratzea soilik falta da.



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



EGITARAUA:

GOIZEAN: hasiera ofiziala Kofradian. Hamaiketako irekia olagarro biltzaileentzat

ELKARTEEN ARTEKO LEHIAKETA: olagarroa patatekin. Ondoren, prestaturikoa bazkari herrikoan das-tatu ahal izango da.

Eusebio Gurrutxaga plazan ELIKAGAIEN AZOKA.

ARRATSALDEAN: folklore jaialdia. Galiziko dantzari talde bat izango da gonbidatua.

DASTAKETA.

GAUEAN, 22:30EAN: Berbena

EGUN GUZTIAN ZEHAR: Beheko Plaza Abesbatza eta Sugarri txarangar herrian zehar.

BISITA GIDATUAK ALGORRIRA

IGANDEAN: erakusketa Oxford aretoan.



Herriko elkarteetako sukaldariek olagarroa patatekin pres-tatu beharko dute.



INMOBILIARIA 943 143361

BIDAIK 943 143323

Ortega y gasset, 1



SIWA
Belardenda

Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Arkupe



*Okindegia
eta gosariak*

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

GOIKO BODEGOIA

"Betiko Goiko"

Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861391



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 885369

"Pista edo maratoia? Ikusi egin beharko dut zer den niretzako onena"

Uda gorabeheratsua izan du Oier Aizpuruak. Atenasko Joko Olinpikoetatik kanpo geratu ondoren, abuztuaren 1ean Manuel Bustorekin piraguismoko Munduko txapelketa irabazi zuen Norvegiako Bergen hirian.

JUAN LUIS ROMATET

Astebete geroago Sella ibaiaren jaitsieran hartu zuen parte eta bigarren sailkatu zen. Estropada polemikoa izan zen, irabazleek bidezidor bat erabili baitzuten esprinta ekiditeko. Bi estropada horiei eta bere etorkizunari buruz hitz egin dugu kirolari honekin.

Lehenik eta behin, abiadurako kirolari bat nola sartzen da maratoiko proba batean?

Joko Olinpikoetatik kanpora geratu ondoren, Manolo Bustok deitu zidan nirekin maratoirako ontzia osatu nahi zuela esanaz. Proba luze bat agoantatu eta bukaeran azkarra eta indartsua zen lagun bat nahi zuela esan zidan, eta denen artean konbentzitu ninduten.

Nolakoa da maratoiko proba bat?

Desgasteko estropada izaten da. Azkenean indartsuen dagoenak irabazten du. Horregatik, esprintak luzeak izaten dira, kilometro horretan gabezia guztiak ateratzen dira. Estropada aurretik dena preparatuta eramaten da, baina arraunean zoazenean ere pentsatu behar da, ez soilik une horretan zer egin, baita geroago zer egin ere. Mundu guztiak esprintean helduko ginela pentsatzen zuen, eta horregatik esprintean zer egin behar den jakin behar da. Hasieratik pentsatuta genuena lortu arte ez ginen geratu.

Zer moduz egokitu zara proba luze honetara?

Ondo. Sendagile eta prestatzaile guztiek esan didate nire baldintza fisikoengatik erresistentzia handia dudala eta esfortzuen artean azkar errekupekatzen naizela. Maratoia, azken finean, hori da: estropada luze bat, bi ordu eta erdi-koa, erresistentzia behar dena eta tiroi asko dituen. Tiroia

jo behar da eta errekupekatu, eta bukaeran esprinta jo. Horregatik, Bustok bazekien beretzat, maratoirako, ni nintzela kide egokiena. Okerrena aldaketa izan da, ze nik gehienez hiru minutuko estropadak egiten nituen, 1.000 metrokoak. Txarra zen, baita ere, hainbeste denboran eserita egotera ohitzea, hanketako eta ipurdiko giharrak nekatu egiten dira eta. Bi ordura heltzean atalase-maila izaten da eta karranpak hasten dira. Hori estropadan zehar ondo jan eta edanez konpontzen da.

Manuel Bustorekin ondo moldatu zara orduan Bai, berekin oso ondo akoplatu naiz. Nigatik esaten dute "todoterreno" bat naizela, batekin edo bestearekin jarrita ondo ibiltzen naizela. Horregatik nengoen Joko Olinpikoetan erreserba bezala, norbait lesionatuz gero ordezkot bezala joateko. Mundialean, taktika eta erritmoa berak jarri zuen. Maratoia irabazteko esperientzia eduki behar da, eta nik hor zorte handia izan dut.

Atzean eseri, erritmoa segi eta arraunean besterik ez nuen egin behar.

Proba honetan berria izanda, nola pasa zenituen porteoak?

Nahiko gaizki, ze "nobatillo" aurpegia ikusi zidaten eta nire bila joan ziren. Porteoetan tokia irabazi behar da eta bultzadak eta amarrukeria txikiak egiten dira. Horiek guztiak niretzat ziren.

Holandarrak oso zikin portatu ziren

eta haiekin borroka izan nuen.

Astebeteren ondoren Sellako jaitsieran hartu zenuen parte. Zer sentsazioarekin atera zinen?

Sentsazio oso ona izan da, gustura nago egin genuen probarekin. Ikusi behar da, gainera, maratoiarekiko oso diferentea dela. Hura ur sakonetan egiten da eta arrauna egiteko modua guztiz desberdina da. Sellak ur gutxi edukitzen du eta egunetik egunera aldatzen da, ur lasterrekin harri batzuk mugitu egiten baitituzte. Arrauna egiteko modua ere oso diferentea da, besoak beheago eramane behar dira, erritmo gehiagorekin eta bizitasun handiagoarekin.

Denbora asko ez zenuten izan zuek proba honetara moldatzeko.

Ez, Sellara egokitze hiru egun izan genituen. Astelehe-

"Maratoia desgasteko estropada da. Azkenean indartsuen dagoena irabazten du."



nean mundialetik etorri nintzen eta astearte arratsaldean Asturiasa joan nintzen. Erria asteazkenean eta ostegunean bakarrik jaitsi genuen. Entrenatzeko oso denbora gutxi izan dugu. Irabazleak, Martinez eta Merchan, Asturiasen bi hilabete luzez egon dira proba prestatzen. Guretzako zorte txarra izan da justu Mundialaren ondoren izatea, bestela, berdina egingo genuke: han hilabetez entrenatzen egon eta denbora eduki ibaiaren ezaugarri guztiak ezagutzeko.

Nola joan zen proba?

Erritmoa markatzen joan ginen eta errio guztia buruan jaitsi genuen. Beraiek, hasieran, buruan jarri ziren, baina ez ziren gu atzean uzteko gai izan. Gero, gure ontzia puskatzen saiatu ziren. Gure ontzia hauskorra zen, "nido de abeja" modukoa. Ontzi gogorra eta potoloa da, baina albo batean kolpe bat hartzen badu puskatu egiten da. Horregatik, gu atzean uzteko gai ez zirela ikusi zutenean, bazterrerara bultzatzen saiatu ziren. Maniobra horiek ikusi genituenean, aurrean jarri ginen gure erritmoan.

Espero al zenuten amaierako maniobra hura?

Espero ez. Aurreko egunetan horretaz hitz egin genuen. Bustori galdetu nion ea atzetik joanda maniobra horrekin ez den denbora irabazten. Baietz zioen, denbora asko irabazten zela, baina jendeari ez zitzaiola gustatzen. Jaitsiera bukatu ondoren, maniobra legala ote zen diskutitu genuen. Legezkoa den dudan dago, araudiaren limitean baitago. Etikoa ez da, behintzat, jaitsiera piraguan egin eta estropada uretan irabazi behar da. Martinez eta Merchanek egindakoa ez da normala, hori enfrentamendua ez bilatzea da-eta. Sellan helmugako zuzenean markatzen sartzen denak ia beti irabazi egiten du. Gu amaieran markatzen sartu bagina, eta gainera beraiek baino azkarragoak izanda, ezinezkoa izango zen galtzea.

Igartzen zen ikusleei ez zitzaieiela gustatu irabazleek egindakoa.

Ez; izan ere, ez duzu pentsatzen halako zerbait egingo dutenik Sella batean, eta, gainera, telebistaz emanda.

ad

**AUTOS
ZUMAIA**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala
Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

**ALTZARIAK
OSTOLAZA**
AROTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Azkenean, beraien kontra joango da. Sella irabazi dute, bai, historian sartuko dira, baina jendearen buruan garai-pena nola lortu duten geldituko da. Martinezek zazpi aldiz irabazi du jaitsiera hau, probako historian dago. Eta horrelako pertsonaia batek horrela irabaztea ez zitzaion jendeari gustatu. Bakarrik helduta edo esprintean irabazi izan balute, ba, zorionak eta kito. Baina joko zikina erabiltzea estropada irabazteko... Bertako jendea sutan zegoan, ez zuten pentsatzen berriro halako gauza bat ikusiko zutenik. Zer aurpegi geratzen zaio bati horrelako maniobra baten ondoren? Hasieran tonto aurpegia gelditzen zaizu. Nik atzetik kontrolatzen nuen, banekien-eta ez zutela proba amaiera esprintean jokatu. Beraientzako estrategia suizida izango litzateke. Bazekiten gu baino gutxiago zirela esprintean eta azken luzean norbait pasatzea oso zaila dela. Ni betiere kontrolatzen nengoen zer egiten zuten, bai begiekin, bai belarriekin. Palada altxatzen bazuten Manolori orroa egiten nion. Bi aldiz saiatu ziren tiratzen, guk zer egiten genuen ikusteko. Hala-ko batean, palada igotzen entzun nuen, baina beraien piragua muturra

ez nuen ikusten. Aldamenara begiratu nuen eta zuzenean lurrerantz zihoazela ikusi nuen.

Horretaz aparte, esperientzia positiboa izan al da?

Bai, baina oso estresagarria ere bai. Goizeko 8etan jaiki, atera eta gaueko 11etan heltzen ginen afaltzera. Tartean, entrenatzeko denbora bilatu behar izaten genuen. Asteaz-

kenean Avilesera joan behar izan genuen dopingeko kontrol sorpresa bat pasatzera. Gero, prentsaurreko bat eduki genuen babesle berria aurkezteko. Leku guztietara joan behar izaten genuen Munduko txapeldunak izateagatik, bereziki Manolo Bustogatik, bere herrian geunden eta. Dena ziren ekitaldiak, aurkezpenak, etab. Egune-

“Porteotan nahiko gazki pasatu nuen, ze ‘nobatillo’ aurpegia ikusi zidaten eta nire bila joan ziren”



BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA

-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

B. Etxegarai 2., behea
943 86 27 14

YIN YANG

GAZTEEN ERROPA

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkeztu ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa "luz pulsada (fotodepilazioa)"
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazaboa z/g. Tel: 943 861 322

ro egunkarietan ginen. "Los campeones visitan la redacción de tal..." eta halakoak agertzen ziren. Uretara joateko irrikatan egoten ginen, hura zen eta gurea.

Jendearen animoak jaso zenituzten, ordean.

Bai, estropadan zehar zaletuen animo guztiak jaso genituen. Halako txaloeak bakarrik ez zaudela adierazten dizute. Oso polita izan zen. Martinez eta Merchane, berriz, dopingarekin izandako arazoak zirela eta, aurkako oihuak entzun behar izan zituzten. Helmugara heldu zirenean txistu asko entzun zituzten. Hasieratik guretzako animo gehiago egon ziren, eta amaieran gertatutakoaren ondoren, oraindik gehiago.

Denboraldia amaitu duzu. Datorrenean zer egin behar duzu, abiadura edo maratonia?

Ez dakit. Orain gutxi abiadurakoek deitu didate datorren urtean nirekin kontatzen dutela esateko. Arazoa maratonia txapelketa irabazi dugula da, Munduko txapeldun izanda, datorren urtean errepikatu egin behar dela esan baitigute. Orain aukeratu

egin beharko dut; Ikusi beharko da zer den niretzako onena.

"Esperientzia positiboa izan da baina oso estresagarria ere bai"



Selekzioa uztekotan zinela ere esan zen.

Bai, hori Joko Olinpikoen ondoren izan zen. Dena uzten nuela esan nuen. Orain, oporrak hartu behar ditut eta pentsatu zer egin behar dudana, pista edo maratonia. Gauza piloa baloratu behar dut, bietan parte hartzea oso zaila da eta. Datorren urtean denboraldia kontu handiarekin planifikatu behar da, maratonia mundiala oso berandu da eta, urriaren 16an, Australian. Normalean denboraldia irailean amaitzen da, gero oporrak izaten ditugu eta entrenatzen urriaren hasten gara. Hurrengo urtean denboraldia urriaren erdian amaitzeaz hitz egiten ari gara. Oso goiz ere ezin gaitezke hasi entrenatzen, gorputzak eta buruak ez dute eta hainbeste tentsio agoantatzen. Baina, bestetik, Espainiako fondoko txapelketa martxoan da, eta klubeko-

ei ezin diet esan ez naizela joango. Horregatik, eseri, datak aztertu eta ikusi egin beharko da zer egin.

Hortz klinika

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetikak (zeramikak metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278

Implantologia: teknika berrienei esker, implanteak jar ditzakegu, nahiz hezur gutxi izan.

EGUZKI PUB

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
ahalgaritza teknikoa,
Balorazioak



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Informazio bizia

Hamar urte bete ditu aurten gure

aldizkariak, eta urtebetetze honek festa

baino zerbait gehiago ekarriko du

berarekin. Kontzertu eta laburmetraiak izan

ditugu ospakizunetan, baina Baleike

proiektua berritzea eta osatze ere izango

dugu. Baleike hilabetekariaz gain,

eguneroko informazioaren bidean sartu

gara Hitzaren eskutik, baina, horretaz gain,

informazio biziaren erronkari ere heldu

nahi izan diogu.

Interneterako jauzia eman du Baleikek www.baleike.com atari berriaren eskutik, eta ez nolanahiko jauzia gainera. Abuztuan proba fasean izango den web gune honek, bere abiada guztiz hartuko du Irailetik aurrera, eta zumaiarren parte hartze bizia izatea espero dugu ordurako.

Baleike.com, zumaiarren Interneteko elkargune izateko helburuz jaiotzen da. Asmoa ez da informazio hutsa ematea, edo berriak argitaratzea, baizik zumaiarrok guri dagozkigun gaiak aztertze plaza irekia izatea. Informazio hutsa izan zitekeena, informazio partekatua eta bizia bihurtzen da horrela, edozeinek berriak argitaratu edo komentatzeko aukera izango duelarik.

Berriak argitaratu eta eztabaidatu

Hainbat atal ditu web gune honek, baina nagusia horixe da: Berriak. Bertan edozeinek argitaratu dezake berri bat, betiere, errespetuz eta gutxieneko baldintza batzuk betez. Hori ziurtatzeko editore batek onartuko ditu erabiltzaileek bidalitako berriak, baina ez dugu espero inolako arazorik izango denik. Behin berri bat argitaratzen denean, web gunean erregistratuta dauden erabiltzaile guztiek posta elektronikoz jasoko dute, eta, horrela, informazioa era bizian jasotzeko aukera izango dugu.

Baina sortzen diren berrien inguruko iritzia ere nahi ditugu. Horregatik, berri baten inguruan norberak bere iritzia emateko aukera izango du, baita iritzien gaineko iritzia ere, eztabaida bizia sortu eta ikuspuntu guztiak eza-gutzeko helburuarekin.

Agenda bat ere egongo da bertan, eta agendan edo-nork proposatu ahal izango ditu hitzorduak. Horretaz gain, inkesta bat ere argitaratuko dugu eta egindako galderen inguruan iritzia emateko aukera ere utziko da.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



INK-JET ETA LASER KARTUTXOEN
ERREGENERAZIO ETA SALMENTA

Tel./Fax: 943 143 592 - Juan Belmonte, 2.bajo - 20750 ZUMAIA

Hemeroteka digitala

Ez dugu, ordea, gure paperezko aldizkaria ahazten. Baleike paperezko aldizkaria izan arren jatorri digitala du, eta horregatik, zenbaki berri guztiak Interneten jarriko ditugu argitaratu bezain pronto. Baina Baleikek hamar urte bete ditu jada, eta hamar urte hauetan pilatutako informazio guztia ere zumaiarren esku utzi nahi dugu. Asmo horrekin sortu dugu hemeroteka digitala. Bertan, Baleikeren hemeroteca osatu nahi dugu aldizkari guztiak erabiltzaileen eskura jarri formatu digitalean. Oraingoan, 100. zenbakitik aurrerakoak bakarrik jarriko ditugu, hortik atzerakoak ez ditugulako formatu digitalean gordeta, baina laster izateko lanean ari gara.

Bestelako atalak

Bestelako informazioa ere eman nahi dugu web gune honetan, ez hain bizia, baina erabilgarria. Horretarako, bestelako atal batzuk ere jarri ditugu erabiltzaileen eskura. Esaterako, Baleike aldizkaria eta Baleike Kultur Elkarteari buruzko informazioa. Baita zumaiarrentzat erabilgarria izan daitekeen bestelako informazioa ere: guardiako farmazien txandak, agenda, telefono interesgarriak, garraio-bideen ordutegiak, eta baita Interneteko loturak ere. Horiek guztiak topatuko dituzue www.baleike.com-en.

Udazkenean Argazki Artxiboa

Web gunearen lehen fasea duzu hemen aurkeztutako hau. Udazkenerako, ordea, hobekuntza garrantzitsu batekin etortzeko asmoa daukagu: argazki artxibo digitala. Baleikek urte hauetan milaka argazki pilatu ditu bere argazki artxiboan; gehienak paperean daude, baina badiugu hainbat formatu digitalean. Horietako asko Interneten jarri nahi ditugu erabiltzaile guztien eskura. Izango duzue berri zehatzagoa abian jarri bezain pronto.

Erregistratu eta erabili

Web gune irekia da gurea, eta bertan nabigatzeko ez dago erregistratuta egon beharrik. Baina erregistratutako erabiltzaileek bakarrik izango dute aukera berriak argitaratu eta iritziak emateko. Erregistratzeak ez du esan nahi parte hartzera behartuta zaudenik. erregistratutako erabiltzaileek posta elektronikoz jasoko dituzte berriak argitaratu bezain pronto; beraz, hori ere izan daiteke erregistratzeko nahikoa arrazoi. Erregistratzeak ez dakar inongo konpromisorik, nahikoa baita erabiltzaile izen bat eta helbide elektroniko bat ematea. Gainera, atari honetan erabiltzen den teknologiarengatik, ziurtatuta dago birusik ez dela bidaliko, beraz ez dago inolako arriskurik. Animatu, erregistratu eta parte hartu!

Blogak, informazioaren fenomeno

Informazioan eta parte-hartzean oinarritutako era honetako web guneak gero eta zabaldago daude Interneten. Weblog edo Blog izenez ezagutzen dira eta informazioa zabaltzeko modua aldatu dute mundu osoan. Euskal Herrian bertan badira oso ezagunak bihurtu diren hainbat; horietan aitzindari moduan Sustatu (www.sustatu.com) har daiteke. Blogei buruz gehiago jakiteko, Jabi Zabalak Berrian argitaratutako artikulu bat aurkitu dezakezu hemen <http://www.sarean.com/sarean/000353.html>. Bestalde, Iban Arantzabal Sustatuko editoreak EuskoNews&Media aldizkarian ere argitaratu zuen gai beraren inguruko beste artikulu bat. Hemen daukazu: <http://www.euskoNews.com/0221zkbk/gaia22102eu.html>



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest


Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334

Eztabaida baleike.com-en dago

Hona hemen irailako lehen egunetan izan zen estabaida bat. Inkestako emaitzak ere hor daude. Zure iritzia eman nahi duzula? Sartu baleike.com-en.



ERANTZUNAK
Andremaiko kanpaiari mihia lapurtu diote
 Torkuato. 2004/09/07 - 09:42 AM
 Adama jotzen? Eumaren fidagamasuna jakin nahiko nuke: Udaizangoan salaketa jarri ote duten, lekukonik ba ote den... Izan ere, gaur goizeko 6:35ean balkoia entzun ditudan kanpaiak zer ziren? Gainerakoan, Larren proposamenarekin erabat ados!
 Erantzun gai nagusiari | Erantzun honi

• **Andremaiko kanpaiari mihia lapurtu diote**
 Torkuato. 2004/09/07 - 10:15 AM
 Mea kupa, Larren osorik eta paxkadat ez irakurtzeagatik. Parrokiakosak irakurtzen al dute gure hau? Nere proposamena: Larren testua gutun bezela baleiken argitaratzea, ea zer bait egiten duten. Gainera, laster itongo da aldizkaria, ezta?
 Erantzun gai nagusiari | Erantzun

• **Andremaiko kanpaiari mihia lapurtu diote**
 Wall. 2004/09/07 - 02:45 PM
 Ez dakizue ezer! Kanpai-jotze hori meza ondoren Txapartegin... gogorirako da! Izaten da! Fede gutxiokak!
 Erantzun gai nagusiari

• **Andremaiko kanpaiari mihia lapurtu diote**
 ane askue. 2004/09/07 - 11:39 PM
 Egindako proposamenarekin guztiz bat nator. Atzo gauean dena prestatu nuen, eskilara kotxe gaur orduerdik batean kanpaia lapurtzeko gai nintzela. Izango nuen goizeko bostetan harantz hurbiltzea, behin kanpaiak esnatu nauten, eta orduan ohartu duela jo, eta auteneko asken aukera galdutako...

KE
 2004/09/19 - 01:11 PM
 2004/09/08 - 11:37 AM
Berriak
 Bata + Berria idatzi

Andremaiko kanpaiari mihia lapurtu diote
 NORK: Lari. NOIZ: 2004/09/07 - 08:55 AM. GAI: Gizarrea
 Gaur goizean zuetako asko konturatuko zineten: 06:30ean, Andremaiko kanpaiak jo beharra zeukan, Bederatziumena baita; baina ez da hala izan. Mutu geratu da, norbiatek kanpaiaren mihia lapurtu duelako.

Hona hor, iraila joan eta iraila etorri, Andre Mariaren Bederatziumena hasterekin batera, gustura asko irakuriko nukeen albitea. Ymalez, esnatu naiz, eta bero-bero, dan-dan-dan, Andremaiko kanpaiak ez naizelakoan.

Oraindik ez dakizuenok, jakizue asteazkenean Anitokitako Eguna da izaten dira goizean eta arratsaldean. Goizean, eguna argitzerako, egoten da, dan-dan-dan. Kalkulus erraza da: 15 minutu bider 10 bider minutuko, 150 dan, gutxi gorabehera... Beharrezkoa al da hain goiz jotzea, ia zumalar guztiok ohean lo ederrean gaudenean? Beharrezkoa al da hain ozen jotzea? Beharrezkoa al da 15 minutuz jotzea? Jotzea bekatu, eta orain beraiek, denon aurrean, jo eta jo... Gainera, barregura ere amaten dit: Andremaiko normalizat jotzen duteneko batzuk izango dira, seguru asko, festetan zarataz kaxatzen direnak, kontzertuetako bolumenaz eta ezorduez marmarmaria ibiltzen direnak...

Andremaira joaten direnen asistentzia kontrolatu eta nobara osorik egiten dutenei, datorren urtean, despertadore berezia opari egitea txominaren ordean, Andremaiko kanpaiak jotzen dituenen, dan-dan-dan, Fededunentzat, lo gozotik esnatzeko, zeruko atea zabaltzea izango da...

ERANTZUNAK (4) Erantzun

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Malaur

ertz
informatika

tresna digital
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Dalac
COMPUTER

trini bidasoro blasco

“Gure bizitza hortxe pasatu dek. Hondartzan”

ABELIN LINAZISORO

Trini ia jaio ginenetik ezagutzen dugu. Itzungo hondartzan egon izan da beti tolduak, itsasoa eta igerilariak zaintzen. Behin baino gehiagotan ikusi dugu soineko eta guzti, eskutan salbabida duela, ia leporaino uretan sartuta, itsasoan larri dabilen bat ateratzen. Guk hamalau urte genituela –1956 urtean, beraz- Zaragozako igerilari txapelduna atera zuen. Guk lagundu genion. Elkarriketa hau izan bedi bereganako omenaldia.

Hemen bertan jaio hintzanan, ezta? Bai. Etxe honetan bertan, orain 83 urte.

Haurtzaroan zer moduz bizi zinen?

Gu? Ahal gendun moduan. Orduan ez zegoan gaur bezelako bizimodurik. Gaur dirua ziok eta nahi deuna jaten diu. Orduan ahal zana. Gure aittak Itzun gainian soua zian eta patata, tipula, porrua... eiten ginien. Linternera ere bauan. Nik 10 urte nitula alargundu uan eta senideak, Joakin eta Jexux, aitta jaunak eta amandriak Eibarra eta Zaldibarra eaman ziaten. Karmelo eta ni geatu gittuan aittakin.

Eskolan zer moduz?

Hoixe zeukat, ba, gaixki nik. Eskolarik ez. Kolegixora, mojetara, juten niñuan eta



Itzurun 1930. Trini argazkiaren ezkerraldean

*“Miel Txiki etortzen
uan ganaduekin
kaxetak hondartzara
jexteko.”*

han galtzerdixak konpontzen, josten, letzen, eskribitzen, sumar, restar, noizean behin historia pixkat eta, garbi esango diat, kuadrilakuak ez ginien ixa ezer ikasten.

Jolasean hobe, ezta?

Gure izeko Rufinak denda txiki bat zian hor Konpitxeo Zaharreneko aurrian eta han gustoa ibiltzen nittuan jolasian eta bazterrak nahasten. Gero, gure kalera. Baina gure kaleak orduan ez zian San Telmo izena, orduan Zubiaurre uan eta



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

oain obretan ai dian lekuak Hondartxo. Eskolatik etorri, merienda hartu, eta etxetik ihesi eiten ginien, kuadrilan jolasean ibiltzeko, neskak neskakin beti: Trenadioska, kukuka, soka-saltuan, zubi-saltoka ere bai... Gure kaliaz arrantzale jendia nahiko uan eta herrixan dozenerdi bat motor egongo ituan: Patxiku Bixina, Mikel Lekeitiarrena, Bixente Tximona, Kletonekua, Bixinekua, Pordillosek baporiazian, eta hemen gure kaliaz jende asko ibiltzen uan gora eta beheara. San Telmo egunerako girnaldak eiteko-eta, karro zaharren bat nunenbaiten harrapatu eta Foronda aldean eta hor zehar ibiltzen gittuan belar eta hostro bila.

Lanean oso gazterik hasiko hintzanan, ba?

Ni gerra garaian lana eginda natxiok. Fran-koren gerrarako ojibak eiten (bonbak eta obusen burua edo aurrealde). Yereguin tailerra zegon tokixan eiten ginien lan (orain Kantauri Plaza) eta jende asko juten gittuan. Aurerrago, estazixo aldera, papele- ra ere bazegoan. Ojibak eiten 8 ordu lan eiten ginien, gizonak eta emakumiak danok nahastuta. Bestela nik aittakin eiten nian lan. Gure aittak bainu beroak zezka- nez , ba, guk plaia hartu ginien. Xakune-



Triniren aitona Trino Bidasororen "San Telmo" itsasontzia.

*"Gerra garaian lana
eginda natxiok.
Francon gerrarako
ojibak eiten."*

kuak eta guk. Han touldak ipini eta kendu ibiltzen gittuan. Gure aittak itsasoko ura barrura sartzeko esku-bonba bat zian eta bainu beroak hartzera jende nahiko etor- tzen uan. Gero, gerra etorri zanean dana aldatu ein uan. Hemengo jauntxoek denen jabe ein ituan eta...

Beno, hori gerorako lagako dinagu. Hon- dartzan lanean zer moduz?

Hondartzan gauza asko ikusten ginien. Batzuek pagatu, besteak ez... Gure aittak Donostitik egurrezko kaxetak ekarri zitian, jendia aldatzeko-eta. Kaxeta hai- xek gero beheara bajatu behar eta lan haundixa iza- ten uan. Miel Txiki etor- tzen uan ganaduekin kaxe- tak hondartzara jexteko. Kaxetak hondartzan atzean paretaren kontra jartzen ituan, baina egurrezko

kurpileko kaxeta haundi haixek hondar gainian oso gaxki ibiltzen ituan. Jendiak erropa han lagatzen zian eta balorea zeu- kana nei lagatzen ziaken. Pultserak, erlo- juak, dirua... Egun batian kartera bat laga ziake, nik ez nian ikusi barruan zer zeon, baina bueltan etorri zanean, erropa jantzi, kartera eskatu eta esan zikan 20 durokua falta zala. Kasualitatez, apaiza bat zeon hantxe gurekin eta esan zian: Zu ez kejatu Trini, hau gezurretan ari da-ta. Hark bazi- kian nik ez nula 20 durokua harrapatu eta gor ein zioan hari: Etzazu modu txarrian jarri neska! Honek jende askokin lan ein behar du eta danon laguntza behar du! Nik nearra pranko ein nian egun hartan! Eta apaiza hark kalmatu natxuan. Dirua



**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051



**Auto-konponketak
ELKAR**

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



reklamatzun zunak azpeitiarra izan behar zian. Gehixo ez zikak pasa halako gauzikan.

Hondartzan itsaso txarrarekin-eta ibiliko hintzanan, ba, jendea ateratzen.

Ba, bat kontatuko diat. Nik orduan 18 urte-edo eukiko nitian. Joxe Uribe atera nian. Jun bai, ederki jun uan aurrera, baina tiraña haundixa zean eta gero, zea, etorri ezin gizona. Toldo bat josten ari nintzala, halaxe, beiratu diat itsasora, beti itsasora beira natxaoan-ta, eta... batenbat gaxki zebilek! Hartu diat salbabida eta, beno, gure aittak poste bat soka batekin hondarretan sartuta eukitzeko ohitura zian, hartu nian nire salbabida hori eta lehorrean zeudenei esan nittien: Kontuz, zaitu nere gauzak itsasoa dihoan haren bila nihoa-ta. Eta hala jun niñuan. Erropa eta guzti. Eta gainea eguneko diru dana patrikan nuala. Hala ba, uretan sartu nauk, bota nittuan salbabida, eta bai aguro hartu ere gizonak! Geo, lehorre etorri zanean ez zioan nik eindakoari garrantzi haundirik eman, baina gero, ikusten nauen bakoitzian, nei besarkada bat eman gabe ez dek geatuko hura! Baina uretatik atera nun lehenengoa reketek bat izan uan. Gerra hasieran. Etorri dek jende pila hondartzara eta gure aittak



esa zikak: Kontuz hauekin! Nik orduan ez nitxikian haixek zer zian, ez ezer. Eta, zer ba?, erantzun nittuan. Danak arropa eta guzti sartu ittuan uretan. Bat oso gaxki zebilean, hartu nian salbabida eta atera nian. Olitekoa uan. Handik berrogei urtera ni bizi ote nintzan Zumaiko bati galdatau zioan. Hura izan uan lehenengoa, gero Joxe Uribe eta gero ere jardunda natxiok lantegi horretan. Gure bizitza hortxe pasatu dek. Hondartzan.

Zer garaitan hasten zineten lanean?

Ba, San Pedroetako hasten uan jendia. Ez dek oain bezela bakoitza bere sillakin-eta. Orduan touldak bere bankuakin alkilatu eiten giñizkian. Udazkenian pagatu eta bale. Baina diru haixek ahitzen zianian, antxoari burua kentzera bada ere jun ein behar! Zarautza ere junda natxiok lanera, hiru tokita. Hai-xetako bat Arinenea, estazixo gainera. Erramun Telleriaren bitartez. Udan lana laga eta neguan hartu egiten zian. Hemendik kuadrila haundixa juten gittuan eta bazkaixa geuk eamaten ginien. Taillerrean bertan sua zegoan, han berotu eta hantxe jaten ginien. Taillerak treneko jun-etorria pagatu egiten zian. Zumaiko kuadrilla ondo konponzen gittuan. Erramuna Poltxaz alabekin, Torre Berriko Anttoni... Zeozor falta bazan, alkarri lagundu eta kitto.

Kapaia
Zaldua

Erribera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

"Muagi"

ERREHABILITAZIOA
KIROL MEDIKUNTZA
FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97



ibilbideak

Txirringaz egun pasa Artikutzan zehar

XABIER ARANGUREN

Ibilbide honen bitartez, eta urrutira joan gabe, oihan eta naturgune paregabe bat ezagutuko dugu. Autoak edo hegazkinak, urrutikoa gerturatzen diguten bezala, bertakoa urrundu egiten digu. Bizikleta xume eta garraio publikoen bitartez, kontzientziaz erabilita, ibilbide interesgarri asko egiteko astia emango digu. Autoa utzi alboan eta goazen, motxila eta kaskoa hartuta, mundua ezagutzera.

Abiapuntua Zumaiako tren geltokia da. Oiartzuna joan behar dugu eta trenaz aldatuko gara Amarako geltokian. Oiartzuna iritsita, Altzibar auzora joango gara eta aurrea segituz karrika auzoak Bianditzeko igoeraren aurrean ipiniko gaitu. Handik 13 kilometroko igoerari aurre egin behar diogu. Erritmo egokian, zuhaitzen itzalpean, Kausoroko leporaino helduko gara. Handik, kilometro eta

erdi aurrerago, Oianlekuko atsedean lekura helduko gara. Aztarna megalitikoak daude ezkerrean, bidegurutze batetik.

Oianlekitik, Bianditzeko lepora segituan helduko gara, Aiako Harrien bista ikusgarriarekin. Bianditzeko portua; 700 metroko igo dugu kolpean, ez gara makalak!


Portu gainean gaudela, aukera anitz ditugu eskuinean edo ezkerrean dauden mendietara igotzeko: 797 metroko Bianditz, edo eskuinean dagoen Bunaniarri edo Munarier (773 metro). Biek ikuspegi apartak eskaintzen dituzte: Artikutzako oihanera, baita ere Donostialdera, Orereta aldera, etab.

Berriro txirringa gainean, aldapa behera abiatuko gara Artikutzako orubean sartzera, Eskas deritzan guardaetxetik. Bertan, auto gidarientzako arauen berri ematen da edo naturari buruzko informazioa ere bai.

Bertso berriak Zumaiako misiyuai jarriak

Bertsolaritza

Bertsolariak izan genituen garai hartan gure herrietako gertaeren kronika egile. Hona hemen 1908 urtean Zumaiari aritu ziren misionis-



Zumaiako Bertso Eskola

tei buruzko agiri historikoa. Gero paperean idatzirik zabaldu eta zumaiarrek kantatu egingo zituzten ondorengo hilabete eta urteetan. Ordukoentzat gertakizun garrantzitsua izango zen dudarik gabe eta hemen gel-

ditu da idatzirik ondorengoentzat oroigarri, garai hartako pentsakeraren lekuko.

18 aleko bertso sorta da berez. Guk 10 aukeratu ditugu. Ortografiari dagokionez, datorren bezalaxe argitaratu dugu. Azken bertsoak badu hutsunetxo bat. Zortziko handiko bertsoak direnez, neurri horretako edozein doinutan kanta ditzakegu. Nor ote da bertsolari hau ? zumaiarra ote ? Edonor dela ere, badu ondotxo bertsogintzaren berri.

1
Mila ta bederatzi eunekin
zortzigarrengo urtian
misionistak izan ditugu
pekatariyen artian
asko anima egongo giñan
deabrubaren kation
libratu eta bide onian
betiko jarri gaitian

4
Estimatzeko diyote elkar
projimo edo laguna
gorrotua ta bengantza txarra
eztaukagula lan ona
batzuentzako argitasuna
askorentzako iluna
negargariya izango dala
juiziyoko eguna

7
Ote liteke mundu onetan
obra oberik arkitu?
esamiñatu ta ondorian
konzientziya garbitu
pekatu asko izanagatik
eztedilla iñor aritu
barkatzen zaizka damutu eta
konfesatutzen baditu

10
Kalte aundirik eztigu egiñ
gizon oiek etorriyak
len lotan zeuden anima askori
zabaldu zaizka begiyak
gusto duanak ikasitzeko
euskera bertso berriyak
oien iztun.....tzunda gazte
artako batek jarriyak.

2
Goizetik hasi ta arratsalde
jaun oien erakustia
Aita Aizpurua bat genduben da
Aita Laskibar bestia
zumaiatarrak desio genduen
oiek emen ikustia
alegina egin gabe
emendik juanak ezitia.

5
Daduzkagula diyo peligro
aundiak eta larriak
endemas ere komertziantze
baitare tratalariyak
lapurreta ta tabernetako
jan da eran geiegiyak
ia nola izan al litezkiean
aien animak garbiyak

8
Guraso zarrak nola ginduzen
neke aundiyan ipiñi
au adirazten itz gutxierekin
ezta errez edozeiñi
Jangoiko onak nola bihar zan
agindu ziyon Adani
arbola ura ikututzia
etzitzaiola konbeni.

3
Atera digu ejenplotxo bat
izugarri egokiya
itz oriyekin ia oroitzen
ote dan pekatariya
badakigula nolakua dan
jorratzen eztan arbiya
alakuaren kontzientziya
eztaguala garbiya

6
Arritu gaitu predikatutzen
oien abilidadiak
esan digute zer diran gure
munduko banidadiak
aparietzi asko dutenak
ez diradela obiak
konfesatzera juaten dirala
damutasunik gabiak

9
Nola diraden amar justubak
beraren mandamentubak
guardatzeko oriyek eta
aren agindu santubak
deskuido gabe egizagula
biairan fuldamentubak
eta atzenian nora biagun
ateratzeko kontubak

Kresala
— edergintza —
Amaiko Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

D'Ana
Oleapaindegia
Kantauni Plaza 6, behea tel. 943 117 406

EGOKI
Erloju eta bitxidenda
E. Gurrutxaga plazan

Olagarroz betetako piper gorriak

O SAGAIAK,
6 laguntzat:

Betegarrirako:

Olagarro bat, kilo ingurukoa.

Tipula bat.

Piper berde bat.

Piperrauts pikantea (pixka bat).

Egindako tomatea (koilarakada bat).

Ardo zuria (basokada bat).

Irina (koilarakada bat).

Esnea (basokada bat).

Gurina (pixka bat).


Nola prestatu:

Pistoa: hartu tipula, piperrak eta kalabazinak eta lauki txikitik zatitu. Salteatu eta gorde gero.

Salteatu perretxikoak, tipula eta baratxuri pixka batekin. Gorde gero.

Garbitu ondo txipiroiak eta ondo gorritu plantxaren gainean, behar bezala egin arte.

Befiat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria




Nola aurkeztu:

Plateraren azpialdean pistoa jarriko dugu, perretxikoekin, eta gain-gainean txipiroiak. Bota gainetik baratxuri frijitua (txiki-txiki eginda) eta perrexila.

On egin!

Oharra: Olagarroa egosteko ur asko behar da, gatzik gabe, tipula oso batekin. Kilo inguruko olagarroa egosteko 40 minutu behar dira, eta hamabost minutu utzi.

Sekretu bat: egositakoan, eta ur guztia kendutakoan, xerratan luzetara moztuta, hirinetan pasatu eta frijituta, olagarroa mundiala dago!



ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

Antonio Etxabe



Gizonezkoen
erropak

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotatuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

Erretegia

OIKIA 943 147083

04-05 denboraldirako dena prest!

Futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko taldeak buru-belarri dabilta denboraldi berria prestatzen.



MAITANE URBIEITA

Lehen mailako futbol partidak martxan dira jada. Berriro ere, igandea iritsi eta guztiok dugu pizgarri berezi bat. Gehienok egongo gara Realak, Athletic-ek eta Osasunak zer egingo zain.

Baina partida horiez gain, herrian bertan ere izango dugu makina bat norgehiagoka ikusteko parada. Izan ere, has-tear baitaude futboleko, eskubaloiko eta saskibaloiko denboraldi berriak.

Badugu berriro ere asteburua nola pasa. Larunbat arratsaldea iritsi eta gure herriko jendeari, neska zein mutilei, animatzeko eta indarrak emateko unea iritsi da.

Denboraldi berriarekin aurpegi berriak, maila berriak... datoz. Eta guztiok jakina-ren gainean egon gaitezen, talde bakoitzaren inguruko hausnarketa txiki bat egingo dugu.

Zumaia Futbol Taldearekin hasiko gara. Aurtengo denboraldirako 6 talde

izango ditu Zumaiaok.

Erregionalek entrenatzaile berriarekin ekingo diote aurtengo lanari. Victor Lekunberri ondarrutarra da klubak fitxatu duen entrenatzailea. Hala ere, ez da hau izango taldeko aurpegi berri bakarra, Lekunberrik Ondarruko 3 jokalarri ekarri baititu berekin. Horietaz gain, lehengo urtean jubenilak ziren 4 gazte igoko dira eta Pinilla, Luis Zearreta eta Xabi Etxabe jokalaria berriz ere jokatzene hasiko dira.

Irailaren 18an hasiko da liga eta lehen partida hori etxean jokatu dute, Idiazabal-en aurka. Aurtengo denboraldiko helburua lehenengo 8en barruan sartzea izango litzateke, hurrengo denboraldian preferentera igotzeko asmoarekin.

Jubenilak, berriz, beste maila batean arituko dira aurre. Izan ere, joan den denboraldian ohorezko mailarako igoera lortu zuten. Joan den urteko entrenatzailea zen Felipe Garmendia Zestoako taldea entrenatzera joan denez, hauek ere entrenatzaile berriarekin hasiko dute denboraldia. Joakin Gorostola zumaia-rrak hartu du, hain zuzen, taldearen ardura. Aurtengo denboraldia ezingo da iazkoarekin alderatu. Iaz, partida asko eta asko nagusitasun osoz irabazi zituzten zumaia-rrak, baina aurreko gogoragoa izango da taldeak indartsuagoak baitira. Denboraldiaurreko bi norgehiagoka joka-



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412

AR Ricardo J. Azcue Yeregui
Abokatua • Aseguruak
Finkei Administrazioilea
txomin aguirre-4, behea
20.750 zumaia (gipluzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net
Tel. 943 862651
Fax: 943 862748



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

tu dituzte, bata Orioren aurka eta bestea Anaitasunaren aurka. Lehenengoan 4 eta 0 gailendu ziren zumaiaarrak; bigarren-
an, aldiz, 0 eta 1 galdu zuten.

Irailaren 11n hasten da jubenilen txapelketa eta lehen partida hori etxean jokatu dute, Urolaren aurka.

Kadeteak ere beste maila batean hasiko dira, baina beherago. Joan den urtean ohorezko mailan jarraitzea lortu ez zute-
nez, aurtun kadeteetako 1. mailan arituko dira. Entrenatzaile lanetan, berriz, iaz infantilak entrenatzen zituen Xabier Domingez "Piru"-k jardungo du. Polita izango litzateke galdutako maila berriro ere berreskuratzea eta hori lortzeko aha-
legin guztiak egingo dituzte etxekoek. Denboraldia irailaren 18an hasiko dute eta Ondarroara joan beharko dute den-
boraldiko lehen partida jokatzera.

Erregionaletako nesken taldeari dago-
kionez, esan beharra dago aurtengo den-
boraldia berezia izango dela. Izan ere, kontuan izan behar da nesken futbola izugarri indartu dela. Eta hori azaltzeko,
esan besterik ez dago Realak nesken tal-
dea atera duela. Gure nesken maila bere-
an jokatu du Realak, baina ez dira

talde berean tokatu. Nazionalerako igo-
ra Realarentzat izango dela ziurtzat ema-
ten dute talde gehienek. Baina Zumaia-
kok gauzak zail jarri nahi dizkio; horregatik, igoera fasea jokatzera da euren
helburua eta esan bezala Realari gauzak
ahalik eta zailen jartzea. Neskak ere irai-
laren 18an ekingo diote denboraldiari eta
Eva Romatet arituko da entrenatzaile
lanetan.

Futbol taldeekin amaitzeko, infantilak
eta futbol 8ko neskak aipatzea geratzen
zaigu. Bi taldeek irailaren 18an hasiko
dute denboraldia. Infantilak Markos
Gonzalezen aginduetara egongo dira eta
Futbol 8ko neskak, berriz, Fernando Ale-
jandre eta Agustin Zumeagaren agindue-
tara.

Futbola alde batera utzi eta eskubaloi-
ko taldeen inguruan arituko gara. Pulpok
9 talde atera ditu aurtengo denboraldian.

Alex Olidenek entrenatzen dituen
Nazionalako 1. mailako mutilak irailaren
25ean Madrilera joan beharko dute den-
boraldiko lehen partida jokatzera. Lega-
nes taldea izango dute aurrez aurre. Tal-
dea ez da gehiegi aldatu joan den urtetik
hona. Axier Agirre eta Pejoren bajak aipa-



tu behar dira, baina baita Peruren itzule-
ra. Euren helburua maila mantentzea da
eta pasa den denboraldiko lan txukuna
errepikatu edo hobetzea.

Lehenengo urtean igoera lortu ondoren,
aurten beste maila batean arituko dira
Pulpoko Senior neskak. Eneko Etxabek
entrenatzen dituen nesken helburua
maila horretan jarraitzea izango da,
baina Pulpoko lehendakaria den Iñaki
Sorazuren esanetan, nahiko lan izango

Emilio Perez
Elektrigaitu, instalazio eta instalazio
elektrikoak salmentak eta konponketak

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaiak

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

dute. Izan ere, jendez nahiko juxtu omen dabilta ikasketak direla eta. Urriaren 24an jokatu dute denboraldiko lehen partida Donostiako Egiaren aurka.

Aurten Territorialeko 1.mailan arituko diren mutilentzat ere maila berria izango da honako hau. Jesus Ostolazaren aginduetara egongo diren mutilen helburua maila horretan jarraitzea izango da. Joan den urteko lan-talde antzekoa izango du Ostolazak bere esku, jubeniletatik igo diren 4 gazte gehituta.

Probintzialetan arituko diren kadete eta jubenil nesken helburua, berriz, joan den urtean galdutako maila berreskuratzea da eta datorren denboraldian euskal ligan jokatzeko, ordea, kadeteetako eta jubeniletako puntuak batzen

dira. Horrek esan nahi, nahiz eta talde bat oso ondo aritu (adibidez jubenilak), bestea ez badabil hain ongi (adibidez kadeteak) igoera lortzea ezinezkoa dela. Baina bai Xabier Letamendiak entrenatzen dituen kadete neskak, bai Iñaki Zubimendik eramaten dituen jubenil neskak ahalik eta lan onena egiten saiatuko dira.

Euskal ligan dabilzan mutilak, aldiz, ez dute sekula maila hori galdu. Hainbat urtetan maila berean jarraitzea lortu dute. Aurtengo helburua, beraz, argi dago: mailari eutsi. Hori aurrera eramateko, jo eta su ari-

tuko dira Joxe Endañetak entrenatzen dituen jubenilak eta Iñaki Sorazuren aginduetara dauden kadeteak.

Kadeteen mailara jendea prestatu iristeko infantilen bi talde daude Pulpon. Talde hauek ez dira lehiatzen, euren helburua jokalariai formatzea da eta. Lan horretan aritzen dira Ramon Gurrutxaga eta Jon Sesma. Lehenengoa mutilekin eta bigarrena neskekin.

Eta hausnarketa honekin amaitzeko, saskibaloiko taldearen inguruan arituko gara. Esan beharra dago saskibaloia dela Zumaian indar gutxien duen kiroltalde bat. Hori frogatzeko, nahikoa da esatea talde bakarra dagoela eta talde horretan jokatzeko dutenak betiko jokalariai direla. Eskolarteko kirolen barnean sartu dute saskibaloia; hala eta guztiz ere, gazte gutxi animatzen da Lagun Arteak babes- ten duen Zumaia Saskibalo Taldean jokatzeko hastera.

Entrenatzaile berriarekin ekingo diote aurtengo denboraldiari zumaia- rrek. Izan ere, joan den urteko entrenatzailea zen Jon Argoiti, Azpeitira joan da entrenatze- ra. Bere tokia Niko Agirre zarautzarrak eta Iñaki Arrieta zumaia- rrek hartu dute.

Irailaren 26an hasiko dute denboraldia Altzan gure "txikiek" eta euren helburua mailari eustea izango da.

Beraz, denboraldi berrirako dena prest dagoenez munduko animurik eta zortirik onena opa dizuegu guztioi. Zorte on!!



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuarako departamentua

Erdipurdiko traineru denboraldia

Irailaren 4an amaitu zen Telmo Deunaren-tzat traineru denboraldia. Itxaropen handia-rekin ekin zitzaion, are gehiago Donibane Lohitzunen jokatu zen Federazio Ligarako sailkatze estropadan lehen postuan sailkatu ondoren. Jarraian izan ziren estropadetan, ordea, ez zuten hain maila ona erakutsi. Laugarren izan zen Donibaneko Ikurrinan, seigarren Gipuzkoako txapelketan... Hon-doa Zarauzko Banderan jo zen, bederatzigarren postuan sailkatu baitzen. Ondoren,

sailkapen hobeak lortzen hasi zen: zazpigarren Bilboko Hirian eta bosgarren Petronor eta Zumaiako banderetan. Kontxako sailka-pen estropadan 19. postua lortu ondoren, Lekeitio eman zion amaiera denboraldia-ri. Urteko estropada onentsuena bete zuten, gainera, azken estropadatan, bigar-ren postuan sailkatu baitziren denboral-dian dominatzailea izan den Arkoteko ontziaren atzetik.

Oso ondo hasi eta ondo bukatu arren,

erdiapurdiko denboraldia izan dela onartzen du Luis Mari Goikoetxeak. Bere esanetan, kontuan hartu behar da jende oso gaztea izan dutela arraunean eta oraindik guztiz egin gabe daudela. "Senior mailan lehen urtez aritu diren arraunlari mordoxka izan dugu, eta oraindik ere indar puntu hori falta zaie. Aurrera begira izan behar da itxa-ropena. Gazte jende asko dago eta hori oso garrantzitsua da", dio Goikok.

Surf txapelketa irailaren 18 eta 19an

Irailaren 18 eta 19an jokatu da Itzurun hondartzan Zumaiako III. Udako surf eta bodyboard txapelketa. Hasiera batean, eta itsasoak eragozten ez badu, larunbatean gaztetxoek probak jokatu dira. Igandean, berriz, helduen txanda izango da.

Maila ugari izango dira txapelketa hone-tan: Sub12, sub14, sub16, emakumeena eta Open maila (16-35 urte) bai surfean eta bodyboardean, eta Master maila (35 urtetik gorakoentzat) surfean bakarrik.

Hirugarren edizio honetan, Open mai-lan, berrikuntzak izango dira, aurrekoetan ez bezala, taldeka jokatu baina txapelke-ta. Talde bakoitza lau kidez osatuta egongo da eta zozketa bidez eratu dira. Neurri honen helburu nagusia da hain maila han-dia ez duten surflariei onentsuenen artean egoteko aukera ematea. Taldeek 40 minutu

izango dituzte orotara 12 olatu hartzeko. Kide bakoitzak 3 olatu hartu beharko ditu eta ondoren lekukoa pasako dio beste talde-kide bati.

Txapelketan parte hartzeko aurrez izena eman beharko da Goofy-Gazte surf eta Imux surf dendan. 14 urtetik beherakoent-zat izena ematea dohainik izango da. 14

urtetik gorakoa eta ZISKE elkarteko kide izanda, 5 euro ordaindu beharko dira. Elkarte horretako bazkide ez direnek 10 euro ordaindu beharko dituzte. 14 urtetik gorakoek derrigorrez federatuak izan behar-ko dute. Izena emateko epea irailaren 17an itxiko da. Sariak, berriz, surfeko materiala eta arropak izango dira.



**OSTOLAZA**
BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza

Bertil Lagerström argazkilari margolaria

ROBERTO GUTIERREZ

Bertil Lagerström artista suediar-zumaia-
rrak erakusketa zabaldu zuen irailaren 3an
Oxford aretoan. Bere lanari buruz hitz egin
dugu berekin

Zer moduz doa erakusketa?

Lehenengo egunetan eta asteburuetan
ondo. Astegunetan batez ere azkeneko
orduan ibiltzen da jendea; asko zortzietan
etortzen dira, ixteko orduan, eta azkenean
bederatziak arte zabalik egoten da. Sartzen
den jendea denbora luze egoten da, koadro-
ei arretaz begira, teknika eta abarrekoak
aztertzen. Uste dut emakumezkoak gehia-
go etortzen direla gizonezkoak baino.

Zergatik pintura eta argazkia, biak batera?

Hasieran pintura bakarrik izan behar zuen,
baina lagun batzuek argazkiak jartzera ani-
matu ninduten, orain dela asko egin nuen-
eta azkeneko argazki erakusketa. Argazkiak
91koak dira, baina inoiz ez nituen erakutsi.
Beno, batzuk bai, Nikolen. Baina koadroak
berriak dira.

Oso deigarria de kontrastea: koadro koloretsuak eta argazkiak zuri-beltzean.

Nire argazki estilorako, kaleko egoeren
argazkiak ateratzeko, egokiagoa da zuri-bel-
tza. Koloretan izan balira informazio gehie-
gi izango zuten. Zuri-beltzak lagundu egi-
ten du arreta egoerara bideratzen. Adibidez,

argazkiaren atze-
aldea koloretan
balitz, aurrealde-
ko keinu batek
baino indar gehia-
go izan lezake.
Honelako argaz-
kietan jarduten
dutenek beti zuri-
beltza erabili izan
dute.

Hala ere, gaiak, gehienetan,

**alegiatzko egoerak dira, gehiago
edo gutxiago, emozioak
adierazten dituztenak**

Jende askori gertatzen zaio, sormen krisiko
garaietan. Ezagutzen ditudan artista
batzuek antzeko egoerak bizi izan dituzte.
Nolanahi ere, nik honela pintatzen dut,
dena batera egiten dut eta gero denboraldi
bat egoten naiz ezer ere egin gabe. Hala-
ber, dualismoa ere irudikatzen dut, aurkako
elementuak. Hau da nire diskurtsoa, zerbait
kontatzeko, idatzi beharrean honela adie-
raztea. Egoerak pintatzen ditut, edo egoe-
ren argazkiak atera.

Aurpegiaren koadroek emozioak eta jarrerak adierazten dituzte: jakin-mina, mesfidantza eta abar. Eduki psikologikoa handia da.

Psikologiaren gaia interesatzen zait. Hori
pintatzea gustatzen zait. Psikologiaren per-
tzepzioa asko aztertu dut, begirada eta
keinu batzuek zer adierazten duten, eta
nola erabil daitezkeen konposatzeko, begi-
raden "pisua" kontuan izan koadroetan,
nola eragiten duten koadroko harmonia
ezartzen duten puntuetan. Geometriarekin
zerikusia dauka. Gai honetan, egile asko
interesatzen zaizkit, adibidez, Arnold New-
man.

Erakusketa edo proiekturik buruan?

Ez dakit. Erakusketa gehiago egin nahiko
nituzke. Orain leku gehiago aurkitu behar
ditut. Lan hau eraman nahiko nuke beste
nonbaitera eta pintatzen jarraitu, aldatze-
ko. Argazkiarekin, berriz, ez dakit... kame-
rarik ere ez daukat!



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083

udazkenerako zazpi pelikula

Urriaren 7an hasiko da zineforum denboraldi berria. Abendua bitartean zazpi pelikula eskainiko dituzte Ostarrena zine klub taldeko kideek.

Kurtso berriko lehen pelikula Sofia Coppola zuzendariaren *Lost in translation* izango da. Bill Murray eta Scarlett Johansson aktoreen laguntzarekin, krisian dauden bi pertsonaren maitasun-adiskidetasun istorio bat kontatzen du pelikula honek. Pelikulako hirugarren pertsonaia Tokioko hiria da. Film honetan egiten duen lan itzelagatik Bill Murray-ek Oscarretarako izendapena jaso zuen.

Urriaren 21 *Vias cruzadas* pelikula eskainiko da. Film hau pasa den urteko Donostiako zinemaldian aurkeztu zen eta epaimahaiaren saria jaso zuen. Bakardadea maite duen ipotx batek, tragedia bat bizi izan duen artista batek eta kubatar jatorrizko hanburgesa saltzaile batek protagonizatzen dute adiskidetasun istorio bitxi hau.

Japoniara egingo dugu orain salto. Azaroaren 4an Takeshi Kitanoren *Zatoichi* film harrigarria eskainiko da. Melodrama, komedia, akzioa eta musikala nahasten dituen pelikula hau samurai itsu baten inguruan mugitzen da. Pelikula honengatik Kitanok zuzendari onenaren saria jaso zuen 2003ko Veneziako zinemaldian.



Zatoichi pelikula azaroaren 4an eskainiko da.

Azaroaren 18an dokumental bat ikusi ahal izango da, polemikaz betea egon den *Capturing the Friedmans*. Estatu Batuetako familia baten istorioa kontatzen du, Friedman familiarena, alegia. Aita eta hiru semeetatik gazteena atxilotuak izan ziren etxeko sotoan zenbait haur bortxatzeagatik. Pelikulak auzi honen berri ematen du eta horretarako familiako kideek grabatutako bideoak erabiltzen ditu.

Abenduan Grupo salvaje

Abenduan hiru pelikula eskainiko dira. 2an, *Memories of murder* korearra ikusi al izango dugu. 1980ko hamarkadan Hego Koreako herrixka batean izandako hilketa batzuei buruz jarduten duen film honek

bi sari jaso zituen pasa den urteko Donostiako zinemaldia, zuzendari onenarena eta kritikak emandako lan onenarena.

Abenduaren 16an klasiko ahaztezin bat eskainiko dute Ostarrenakoek, Sam Peckinpah handiaren *Grupo Salvaje* maisulana. William Holden-ek eta Ernest Borgnine-ek antzeztua, western hau zinemaren historiako film garrantzitsuenetako bat da. Pantaila handian ikusteko aukera ezin hobea.

Urtea amaitzeko, marrazki bizidunen pelikula bat ikusi ahal izango da, *Shrek 2*, alegia. Berde koloreko ogroaren bigarren abentura hauek bi emanalditan eskainiko dira, arratsaldean haurrentzat eta gauean helduentzat.



agenda

IRAILA

Bertil Lagerströmen erakusketa.

Pintura eta fotografia. Irailaren 17a arte, eta irailaren 20tik urriaren 1era. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara. Asteburutan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Laia Espazioko erakusketa. Aitor

Etxeberria, Juan Karrillo, Keixeta, Valentin Manterola eta Anton Egigurenen erakusketa irailaren amaiera arte.

Irailaren 18an, Olarru eguna.

Egitaraua 9. Orrialdean.

Irailaren 19an, Kotxerik gabeko

eguna.

10.30etik 14.30era, eta 16.30etik 20.30era trafikoa moztuta zubi txikitik aurrera. Ordu tarte horretan ezingo da kotxez ibili herrigunean. Kirol portuko zabalunean kotxea uzten dutenek bertara txalupaz hurbiltzeko aukera izango dute. Txalupa zerbitzua dohain izango da. Eguerdia baino lehen Udaltzaingoa auto edo motorraren giltzak edo gidatze baimena uzten duten gidariak opari txiki bat jasoko dute; gainera, zozketa batean parte hartuko dute. Saria: nekazaletxe batean asteburu bat. Giltzak edo gidatze baimena 20.00etatik aurrera jaso ahal izango dira berriz, udaltzaingo bertan. Egitaraua 11.00etatik 12.00etara: Bizikletan ibilbidea.



Argazkia:
Bertil Lagerström

KOTXERIK GABEKO EGUNA

Irailaren 19an kotxerik gabeko eguna izango da. Egun egokia bizikletan ibiltzeko...

Irteera arranpla parean. Ibilbidea amaitzen duten guztiek oparitzo bat jasoko dute (10 urte azpiko gaztetxoek heldu baten laguntza beharko dute). Jarraian, parte hartzaile guztientzat hamaiketakoa. 12.00etatik 14.00etara: Txu-txu trenaren itzuliak. Moila inguruan Parke Erraldoia: puzgarriak,

ludoteka, bizikleten trena, pelota etxea, Gran Prix berezia...

17.00etatik 20.00etara: Txu-txu trenaren itzuli berriak; parke erraldoia berriz martxan!

19.00etan, Arranpla parean, Poxpolo eta Mokolo pailazoen saioa. 20.00etan, Getariako Dantza Latinoen Konparsaren kalejira.

URRIA

Urriaren 1ean, 23:00etan, Ihintza tabernan, zine forumeko 2004-2005 denboraldiaren aurkezpen parta.

Urriaren 7an, 22:15ean, Aita Mari zinean, zine forum saioa: "Lost in translation".

TOMAS TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

LIB
AIZPURUA
R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



Mota
guztietako
altzariak

Xanti Osa

Amia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



Casa BASUSTA



**CASA
BASUSTA**

LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago plazoa, 18 TEL: 943 862611



Ardantzabide

altzariak - aroztégia



**tarimak, ateak,
leihoak, pertsianak,
horma armairuak,
aluminiozko armairuak...**

Hego kalea, 4 (estazioa) 5. pabilioia

Tel/faxa: 943 862 532

Tailerra: Santixo auzoa 40

